


PANDEMIA

HONETATIK IKASI



Ikaskuntza da pertsona eta gizarte gisa hazi eta hobetzeko daukagun funtsezko bideetako bat. Zailtasunak ez dira "per se" txarrak, aurrera egiteko konponbideak bilatzeko aktibatzen gaituzte.

Egia da egungo arazoa konplexua dela eta gure eskemak sakonki astindu dituela. Gaur egungo egoerak oso oinarrizkoak diren zenbait gairen inguruan, begiak zabaldu dizkigu: ZIU eta arnagailurik eza, babes-ekiporik eza, industriaren ahultasuna alderdi askotan, jende askoren bizi-beharrak ase gabe...

Baina ikaskuntzak baliabideak eskatzen ditu: informazioa prozesatzeko ezagutzak; gure prozesu mental eta espiritualak aztertzeke eta bereizteko trebetasunak; bizitzatik ikasteko aktibatzen gaituzten gaitasun afektibo-emozional egokiak; lan kooperatiboa eta solidarioa indartzea; balio erreferentzialetan indarra jartzea, hala nola zintzotasuna, errespetua, eskuzabaltasuna, etab.

Funtsean, astintzen gaituen errealitate baten aurrean gaude: norbanako gisa, gure ahultasunarena (lana galtzeagatik, gaixotasunagatik, hurbileko heriotzagatik...) eta kolektibo gisa (gure inguru hurbilari eta ez hain hurbilari eragiten dio).

Erreakzionatu egin behar dugu krisi honetatik hobetuta irteteko. Lehenik eta behin, gutako bakoitza zer ikasten ari garen pentsatu behar dugu. Ez dago inori ezer esaterik guk zer egin ez badakigu.

Iruditzen zait ez garela erabat ohartu, gauza batzuk funtsezkoak direla eta beste batzuk ez direla hain. Bizitza errazagoa izan daitekeela eta izan behar duela. Diru eta ondasun gehiago metatzea ezin dela ongizatearen bidea izan. Geure onena atera behar dugula, guretzat eta besteentzat. Zainketaren etika guztiz beharrezkoa da. Gure inguruan lehiakortasun gehiegi dagoela, eta arreta gehiegi jartzen dugula berehalako arrakastan, gizarte-onarpenean eta ekonomian, jendearen garapen sozial eta kolektiboan baino (guztien ongia, lankidetzat, elkarrekiko laguntza).

Besteak beste, inoiz baino argiago ikusi dugu nola landu behar ditugun alderdi emozionalak: erresilientzia, ilusioa edo konfiantza etorkizunean. Gauza bera esaten dugu gure ekintzen erantzukizunari buruz. Kontua ez da "legeak aginduta" egitea, uste osoz baizik.

Azkenean, ez litzateke gutxi izango elkarrekin lan egin behar dugula konturatzea, elkartasun-loturak egin, herritarrei laguntza, ahulenei bereziki irekita bizi inor abandonatuta senti ez dadin. Ezin da bakarka ihes egin, ahal duena salba dadila, arazoak alboratu, horiek ez baitira nireak.

Elkarren beharra dugu. Osasun-langileak, suhiltzaileak, garraiolariak, nekazariak, dendetako langileak, irakasleak eta komunikatzaileak behar ditugu; gizateria bezala lotzen gaituen sareko giza taldea osatzen dugu guztiok.

Profesionalek ematen dituzten zerbitzuak baloratzeko eta beste gauza batzuk erlatibizatzen gai egin gara. Hobe horrela, era honetan sentituko baikara bakean denon artean.

Xabier Andonegi
Caritas Gipuzkoako Konsiliaria